

{ asteari zeharka begira } **Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI**

Informazioa eta azukrea, «infodieta» egokia hartu

Francesco Petrarca aspaldi ohartarazi ginen: goseak baino, gehiegi jateak kaltezen du burua. Gizentasun intelektuala-
ren krisian omen gaude, informazioak gure burmuinak usteltzen ditu. Azukrea-
rekin bezala gertatzen ei da. Energia iturri
eskasa zelako, azukrea desiratzeko eboluzionatu gi-
nen, baina behin industrialki ekoizten ikastea, gauza
gozoekiko gure tirantza arazo bilakatu zen. Berdin in-
formazioarekin, eta eratzeko moduko bere ugaritasu-
narekin. Aspaldi, informazioak gure kuriositatea zen-
tratzen zuen; egun, distraitu egiten du.

Azukrearen eta informa-
zioaren arteko analogia ez
da kapritxo erretolika. Burmuinak informazioa
berezko sari bezala trata-
tzen du; ez du axola zeha-
tza edo erabilgarria den, in-
formazioa irrikaz nahi
izaten segituko du eta kon-
sumitu ostean gustura
sentituko da.

Zientoka milurtekotan
hau ez zen arazoa. Gure arbaso ehiztari-biltzaileentzat
informazioa azukrea bezain eskasa eta preziatua zen.
Hori dena aldatu da gizarte industrialarekin eta inter-
netekin. Egun, atentzioaren ekonomian bizi gara, gu-
re atentzioa erakartzen ahalegintzen dira bitarteko
guztiak erabilia. Eta gure burmuinen informazio irri-
kak asetzeko kalitate baxuko informazioa kalitate al-
tuko bezain eraginkorra denez, modu efizienteena
zabor-informazioa industrialki ekoiztea da. Pentsa-
menduarentzat nolabaiteko zabor-jana sortzea, ekoiz-
teko merke eta kontsumitzeko atsegingarri, gehiga-
rrietan aberats, nutrienteetan baxu, eta potentzialki
oso adiktibo.

Zabor-informazioa informazio faltsua izan ohi da,
baina ez da zaborra faltsua delako. Zaborra da erabile-
ra praktikorik ez duelako, ez duelako zure ulermena
hobetzen, zure bizitza hobetzen. Gezurrak ere elikaga-

rriak izan daitezke. Baina egiaztatuak diren gertakizu-
nekin antzeko zerbait gertatzen da, ez dute zure bizi-
tza edo ulermena hobetzen, itotzen ari denarentzat
uraren konposizio kimikoa ulertzearen parekoa da.

Merkatuaren indarrek eta presio sozialek ahalbide-
tu dute zabor-informazioak internet dominatzea. Mi-
lioika pertsona engantxatzen ditu, beti dago eskura-
garri. Egun kontsumitzen diren eduki gehienek ez
dute munduaren ulkerak hobetzen. Aitzitik, sare so-
zialetan gero eta gehiago nabigatzen dutenak infor-
mazioa prozesatzeko ezgaituago eta inkontzienteago
dira, sarri irakurri berri dutena ezin gogoratzera.

Zabor horrek zure memorian utzi zuloak
igartzean, argi geratuko zaizu ez zinela zu
informazio hori kontsumitzen zuena; berak
zu kontsumitzen zintuela

Zabor-informazioak zapora zoragarria du. Dopami-
na zeureganatzeko bideek ez dute erabilgarria den eta
ez den informazioaren artean ezberdinduko. Ikasten
ari zarela uste izatearen satisfazioa emango dizu, inte-
ligenteagoa egiten ari zaren ilusioa, burmuinean lau
gominola sartuko bazenitu bezala. Gero eta gehiago
kontsumituko duzu, jonki baten pare.

Zure kontzientziaren korronea oztopatu eta bu-
ruan arteriosklerosia garatuko duzu. Eta, azkenean,
gure beharretara egokitutako “infodieta” zein den
erabaki beharko dugu. Baina sareak eskaintzen dizun
oro kontsumitzen jarraitzen baduzu, jakin bazkaria
bukatzeko postea zain izango duzula gero, eta zabor
horrek guztiak zure memorian utzi dituen zuloak
igartzen dituzunean, argi geratuko zaizu ez zinela zu
informazio hori kontsumitzen zuena; berak zu kon-
sumitzen zintuela. •